



MISIOA

Osakidetzako Araba Erakunde Sanitario Integratuak (Araba ESI) atxikiak dituen herritarren osasuna sustatzea du helburu, baita osasun-laguntzarik onena eskaintzea ere, ekitate, eraginkortasun, kalitate eta solidaritate printzipioei jarraikiz eta profesionalen prestakuntzarekiko, ikerketarekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa bere gain hartuta.

IKUSPEGIA

ESIk erakunde proaktibo eta berritzailea izan nahi du, gaitua Espainian zein nazioartean, erreferentzia irakaskuntzan eta ikerketan; eta ahalik eta osasun-zerbitzu publikorik onena eskaini nahi du une oro. Honako hau da helburua:

- Erreferentziazko erakunde bat izatea herritarrentzat haien osasunerako inplikazioan, bere eragin-eremuan presente eta aktiboki integraturik egotea, eta arreta segurua eta kalitatezkoa eskaintzea, teknikarik egokiarenekin eta alderdi guztietan koordinaturik.
- Egitura jasangarri, eraginkor eta efi zientea izatea, baterako helburuak lortzen dituen eta esleituak dituen herritarren artean konfi antza sorrarazten duena.
- Profesionalak protagonista sentiarazten dituen eta kide izateagatik harrotzen dituen erakunde bat izatea.



BALIOAK

PROFESIONALITATEA

- Konfiantza sortzea, norberaren zein besteen ahaleginak eta lorpenak aintzat hartuta.
- Pazienteen erabakiak errespetatzea eta erroreak onartzea.
- Profesionalek sortutako formakuntza sustatzea.
- Profesionalen arteko komunikaziorako formulak bilatzea, ezagutza elkartrukatzeko.

HUMANIZAZIOA

- Paziente eta laguntzaileentzako guneen humanizazioaren alde lan egitea.
- Pazientearentzako artapena eta laguntza egokitzea, prozesu eta beharrianak aintzat hartuta.
- Tratu hurbila eta adeitsua erraztea: gure burua aurkeztea, pazienteak dionari adi egotea, begietara begiratzea, irribarre egitea,...
- Albiste on eta txarrak ematen jakitea.
- Egunean egotea informazioari eta dauden baliabideei dagokienez, atentziorik onena eskaini ahal izateko.

JOKABIDE ETIKOA

- Erakundearen Kode Etikoa definitu eta komunikatzea, eta profesionalek zein pazienteek nork bere gain hartu eta errespetatzea.
- Osasun arloko datuak eta datu ekonomikoak gizartean zabaltzea.
- Informazioa era egokian kudeatzea.
- Profesionalen arteko tratua humanizatzea eta gune desberdinak sortzea ondokoak sustatze aldera: integrazioa, elkarren arteko sorkuntza, enpatia, eta harreman pertsonalen zein birtualen (emaileak erantzutea) errespetua.
- Jarduketa asistentziala egokitzea ebidentzia zientifikoaren arabera, eta ez bestelako presio sozial, ekonomikoren eta abarren arabera.

ERAGINKORTASUNA

- Plan Estrategikoa eta Urteko Kudeaketa Plana definitzea, helburu argiekin, zerbitzu eta unitate mailan zabalduta, eta euren jarraipena eginda.
- Eraginkortasuna lantzea, eta horretarako, erabakiak ahalik eta denbora laburrenean hartu, benetan beharrezkoak diren baliabideak erabili, eta pazientearen gogobetetzea aintzat hartu.
- Ebidentzian oinarritutako jardute-irizpideak bateratu eta eguneratzea, bikoiztasunak saihestuta, segurtasuna handituta, eta kalitateko estandarrak beteta.

QUIENES SOMOS / ESTRATEGIA

- Liderrak inplikaraztea baliabideen kudeaketa jasangarri baten alde. Horretarako, kontsumo eta gastuen datuak jakinaraztea, kostuari dagokionez eraginkorra den asistentzia bat lortze aldera.

TALDE-LANA

- Indibidualtasuna eta ideia desberdinak errespetatzea.
- Parte-hartzeko foroak sortzea maila guztietan, hau da, herritarrak aintzat hartuta.
- Helburu komunak jartzea, eta ekintzak koordinatzea errespetu eta konfiantzan oinarrituta.
- Talde-lanerako dinamika positibo eta berritzaileak abiaraztea.
- Helburu eta emaitzen ebaluazioa, metodologia eraginkorragoen bidez gauzatzea.
- Komunikazio-bideak hobetzea, lantaldean informazioa trukatzeko laguntzeko.